


# Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta *Viva Jesús* testuaren jatorriaz

Eneko Zuloaga  
(UPV/EHU)

Gasteiz, 2012ko urriaren 9a

# Atarikoak

- ▶ Bizkaiko sartaldeko euskara zaharra hobeto ezagutzea
  - ▶ Geografia eta kronologia
  - ▶ Abiapuntua: *Viva Jesús (VJ)* dotrina
  - ▶ Hipotesi berria testuaren jatorriaz
- 

# 1.- Bizkaiko mendebaleko ezaugarriak

- ▶ Bizkaiko mendebalean lehenengo testuetarik ageri direnak eta gaur egun bizirik dirautenak.
  - $-o + -a$  bokalak batzean  $> -oa$  forma gordetzea
  - $-gan$  atzizki palatalizatu gabea
  - Sozietiboan  $-gaz$  (sing.) eta  $-kaz$  (pl.) atzizki-bikotea.
  - \**edun* aditzeko 3. pertsonetan  $-de$  pluralgilea
  - Adlatiboan  $-rantza$  atzizkia.
  - Zenbait aldaera lexiko: *uzen* 'izen', *geitu* 'deitu', *gedar egin* 'deadar egin', *anaje* 'anaia', *hamaka* 'hamaika', *ulle* 'ile', etab.

# 1.- Bizkaiko mendebaleko ezaugarriak

## ▶ Kanpoan utzi ditugunak

- *Rui* araua: ez baitakigu XVII. mendea baino lehen sortua zen eta ondoko mendeotan Euskal Herriko mendebal eta erdialdean asko zabaldu delako.
- Iraganeko adizkietako  $-n > \emptyset$  eta *\*ezan* aditz-laguntzailearen galera: lehenengoa Bilbotik kostaldera bakarrik dokumentatu da, eta bigarrena azken mendeotan Euskal Herriko mendebal osoan gertatu da.

## 4. *V*<sub>n</sub> eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak

- ▶ Txistukarien neutralizazioa
  - Lakarra (1996, 1997, 2002)
  - Fenomenoa hedatzea
  - *V*<sub>n</sub>ra nondik iritsi zen?

## 4. VJn eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (2)

- ▶ *au* > *eu* EDUKI aditzeko formetan.
  - VJ: *deunquezan*, *beuqué*
  - Orozko eta Laudiotik urruntzen du
- ▶ Sarriak eta Astigarragak badituzte: *badenco*, *ezpadeunquezubez*, *deucasuna*, *badencasu*, *deuco*, *deucasun*, *deuquela*, *deuquen*.
- ▶ Uriarteren Arrigorriagako itzulpenean: *au*
- ▶ Gaur egun *e* soileko formak dira sistematikoak

## 4. Vjn eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (3)

- ▶ Orozkoko dotrinan *au* forma bakarra.
- ▶ Laudioko 1828ko eta 1858ko dotrinetan, eta *Ruth-en liburuan* (1872) ere bai.
- ▶ *EIren arabera, daukat* Orozkon eta *deukat* Laudion.
- ▶ Iñaki Gaminde (1983, 1984).
- ▶ Juan Manuel Etxebarria (1995).
- ▶ Anuntxi Arana (1996).

## 4. *VJ*n eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (4)

- ▶ Hurbiltze adlatiboa: *-rantx(a)*
  - XX. mendea baino lehen, Bizkaiko hego-mendebalean
    - *VJ*
    - Orozkoko 1739ko otoitzak
    - Uriarteren Arrigorriagako itzulpena (1866)
    - Orozkoko dotrinaren itzulpena
    - J.P. Ulibarriren lanak.
    - *Ruth-en liburua* (Laudio)
  - *EI*: Laudio (Arrankudiaga?), Loiu, Berango eta Arabako Eribe.



## 4. VJn eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (5)

- ▶ Gaztelaniatiko *-ción / -sión* > *-cinoe / -sinoe*
  - Gaur egun Bizkaiko ipar-ekialdean.
  - Sartaldeko testu zaharretan ere sarritan.
  - Haranaren iparraldean, XVII. eta XVIII. mendeetan, indartsu (Sarria, Astigarraga, Uriarte), baina *-zino / -sino* berriagoa ere ageri da.
  - Hegoaldean: Orozkoko sermoi argitaragabeak, Orozkoko dotrina (*-zino / -sino* ereduak ere bai), Laudioko 1828ko eta 1858ko dotrinak; baina, *Ruth-en liburuan* ez.

## 4. *VJn* eta *XVIII.* eta *XIX.* mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (6)

### ▶ *-miento* > *-mi(e)ntu*

- Mitxelena Betolatzari eginiko zuzenketa
- Bizente Sarria: *-mentu* eta *-miento*
- J. I. Astigarraga: *-mentu* eta *-mintu* (salbuespen bakarra: *zimientu*).
- Uriarte: *-mintu* eta *-mentu*
- Hegoaldeko testuetan ez dago *-miento* atzizkirik, eta 1858ko Laudioko dotrian *-mentu* eta *-mintu* ageri dira.
- Arratian ere *-mentu* eta *-mintu* agertzen dira.

# 4. VJn eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (7)

## ▶ Aditz-izenak

- Joerak eta koherentzia
- *-tuten* eta *-duten* formak nagusitu: *-tzaiten* desagertu eta *-i(d)u* amaiera duten aditzetara zabaldu dira.
- *CVC-tu* egitura dutenetan *-tze(a)n* ere, baina gutxitan.
- *-ite*<sub>1</sub>
  - VJ: *urteiten* eta *emaiten* (ez *izaiten*). Sarriak *urteiten*, *emaiten* / *emoiten*. Astigarragak *urteiten*, *emoiten*, *izaiten* eta *igoiten*.
  - Gaur egun, Orozkon *emoiten* eta *urteiten*, eta ibarraren iparraldean bigarrena bakarrik.
- *-tuiten*
  - Hegoaldeko testuetan bakarrik, XVIII. mendearen amaieraz geroztik.
  - Gaur egun ere batzuek badarabilte, baina badirudi XIX. mendean bertan ere ez zegoela sistematizaturik. Orozkoko dotrinan forma bakarra *-tuten* / *-duten* da; Laudioko 1828ko dotrinan ere horiek dira forma bakarrak. 1858koan, aldiz, lehia ageri da, baina 1872ko *Ruth-en liburuan* ez.

## 4. *Vj*n eta XVIII. eta XIX. mendeko testuetan ageri diren berrikuntzak (8)

- ▶ *Rui* edo *Low vowel assimilation* araua
  - Honetan ere jarraitutasuna eta koherentzia.
  - *-ago* graduatzailea:
    - Gaur egun ez dago arauaren menpe
    - XIX. mendeko Nerbioi ibarreko zenbait testutan bai, ordea: J. P. Ulibarri, Laudioko 1858ko dotrina, Astigarraga, Uriarteren Arrigorriagako dotrina, Arratiako dotrina. Orozkokoan, aldiz, *-ago* ageri da.

# Ohar bat *-ub V<sup>(a, e)</sup>* eta *-ob V<sup>(a, e)</sup>* epentesiez

- ▶ Ros & Sainz (2001) lanean Barakaldo-Gordexolako haranen arteko harreman linguistikoaz hitz egiten da, *Mucusúluba* eta *Garamílloba* toponimoen kariatara.
- ▶ Loturarik toponimo horietako epentesien eta Orozko/Baranbio aldekoekin?

# Ohar bat *-ubV<sup>(a, e)</sup>* eta *-obV<sup>(a, e)</sup>* gisako epentesiez (2)

## ▶ *-ubV<sup>(a, e)</sup>*

- Orozkoko 1739ko otoitzetan ez dugu aurkitu.
- Orozkoko dotrinan badago, baina ez sistematikoki.
- Laudioko 1828ko dotrinan gutxi dira.
- 1858koan ez da ageri.
- *Ruth-en liburuan* ere gutxi dira.
- Sarriak baditu.
- Astigarragak baditu.
- Literatur bizkaieraren eragina?

# Ohar bat *-ubV<sup>(a, e)</sup>* eta *-obV<sup>(a, e)</sup>* gisako epentesiez (3)

## ▶ *-obV<sup>(a, e)</sup>*

- Juan Mateo Zabala: “cuando la o rozan con la a les hacen mediar una b, diciendo v.g. “doba” por “doa” (1848: 55).
- Uriarteren lagun(tzaile) Oarabeitiak dio aoba, artoba, otzoba eta ardaoba bezalakoetan oso leun ahoskatzen direla epentesiak, baina agure eta hiztun traketsek -oma aldaera ere bazerabiltena.
- *EI*: Orozkon galbidean, Baranbion XX. mendearen 2. erdialdeko testigantzak.
- XX. mendea baino lehen
  - Orozkoko eta Laudioko 1858ko dotrinetan badago, baita *Ruth-en liburuan* ere.
  - Bizente Sarriak (batik bat) eta Astigarragak badituzte adibideak: *picaroba*, *amodiyobagaitic*, *acaberabacoba*, *bautismoba*, *gaistoba*, *nengoban*.
  - Beraz, ematen du Nerbioi ibar osoan baliatutako formak direla.

# Ondorio gisa

- ▶ Nagusiki, bi ezaugarrik aldentzen dute  $VJ$  Orozko eta Laudio aldetik: txistukarien neutralizazioen kronologiak eta EDUKI aditzeko  $au > eu$  bilakaerak.
- ▶ Horrekin batera, orain artean Orozko eta Laudio aldeko ezaugarritzat jo diren zenbait elementu, aldaera eta erabilera Nerbioi ibarraren iparraldean ere aurkitu ditugu.
- ▶ Proposa daiteke, betiere hipotesi mailan,  $VJ$  testua, beharbada, Nerbioi ibarraren ipar edo erdialdeko herriren batean idatzi zela.



# Ondorio gisa (2)

- ▶ Hipotesiaren ahulguneak: *-tuiten* aditz-izena, esaterako, Hegoaldeko testuetan eta hiztunengan lekukotzen delako bakarrik.
- ▶ Ez da harritzekoa haranaren iparraldean eta hegoaldean ezaugarri bertsuak aurkitzea (XVIII. mendiaz geroztik eremu batek eta besteak ezaugarri bereizleak ere badituzte), inguru horretako bide naturala baita Bilbotik Urduñara doana, ibarra goitik behera zeharkatzen duena. Elkarreraginak, hortaz, bi norabideetan gerta zitezkeen: Bilbotik hegoalderantz eta hegoaldetik Bilborantz.

# Ondorio gisa (3)

- ▶ Testuen urritasunak eta fidagarritasun-arazoek mugatzen dute gure jarduna, baina azterbide berriak ere badaude:
  - Zenbait ezaugarri Nerbioi haranean eta Arabako beste leku batzuetan (cf. Azkuek Eriben jasotako datuak edo Lazarragak eta Betolatzak ematen dituztenak) aurkitu izanak iradokitzen du, agian, Araban bertan sortu eta hegoaldeetik iparralderantz hedatu zirela.
  - Nolanahi ere den, aztertu egin beharko da berrikuntza beregain paraleloak izan daitezkeen.
  - Oraindik ere badago aztergairik, hortaz.

**Eskerrik asko!**